

# *habitar . paisajes olvidados*

Adel Alonso

# Adel Alonso

habitar . paisajes olvidados

Barakaldo
CIUDAD·HIRIA

Barakaldo, 2025eko ekaina

Adel Alonso artista plastiko polifazetikoak Barakaldora dakarkigu Habitar. Paisajes olvidados izeneko erakusketa. Erakusketa/instalazio honetan bere azken lanak aurkeztuko ditu. Bertan, artistaren ezaugarri den diziplina anitzeko izaera ikus dezakegu, hainbat euskarri eta teknika erabiltzen baititu, hala nola bideoa, argazkiak, eskultura-objektuak, obra interaktiboa...

Adelek gure herriarekin duen lotura aspalditik dator; izan ere, gaztetan margolan inpresionista eta surrealistak margotzen zituen Barakaldoko familia-etxean. Geroago, 80ko eta 90eko hamarkadetan, Udal Erakusketa Areto honetan egon zen bere lehen eskultura-lanekin, eta kultur kudeatzaile gisa ezagutzen jarraitu dugu, proiektu hauetan: “Ezkerraldea Plastika” eta “Ex!poesía”.

Erakusketaren izenburuari erreparatuta, Adelek identitateaz, memoriaz eta azken urteetan izandako aldaketa kultural eta sozialez hitz egiten digu. Hori guztia, gaurkotasuneko gaiak modu figuratiboan jorratuz egiten du, hala nola migrazioa eta jasangarritasuna.

Eskertzen dut gai horiek adierazpen artistiko bihurtzea, eta erakusketa hau gizartera gehiago hurbiltzeko bidea izatea.

**Nerea Cantero Gurtubay**
Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria
eta Adikzioen Prebentzioa
Arloko Zinegotzi Ordezkaria

Barakaldo, Junio 2025

*El polifacético artista plástico Adel Alonso llega a Barakaldo con la muestra titulada: Habitar. Paisajes olvidados. Se trata de una exposición-instalación donde presenta sus últimos trabajos. En ella vemos el carácter multidisciplinar característico de este autor al utilizar soportes y técnicas diversas; como son: vídeo, fotografías, objetos escultóricos, obra interactiva…*

*La presencia de Adel en nuestro municipio se retrotrae hasta la época en la que de joven pintaba sus primeras series de cuadros impresionistas y surrealistas en el hogar familiar de Barakaldo. Posteriormente, en los años 80 y 90, estuvo presente en esta Sala Municipal de Exposiciones con sus primeros trabajos escultóricos y hemos seguido conociéndole como gestor cultural, en los proyectos: “Ezkerraldea Plastika” y “Ex!poesía”.*

*Atendiendo al título de la muestra, Adel nos habla de la identidad, de la memoria y de los cambios culturales y sociales sufridos a lo largo de los últimos años. Todo ello lo hace tratando temas de actualidad como la migración y la sostenibilidad, de un modo figurado.*

*Agradezco que estas cuestiones adquieran una expresión artística y así acercarlas aún más a la sociedad; como por ejemplo, a través de esta exposición.*

**Nerea Cantero Gurtubay**
Concejala Delegada del Área de Cultura,
Educación, Euskera y Juventud
y Prevención de Adicciones







## Haitz bat zirkuluak eginez flotatzen

Oihane Sánchez Duro *

Adel Alonsoren lanaz hitz egitean, egitura konplexu bati aurre egin behar zaio; diziplina anitzeko instalazioa da eta irakurketa-maila ezberdinak ditu eta guztiek ere gizarte garaikidea osatzen duten zirrikituetan zorrozki sakontzen dute.

Erakusketak zeharkako irakurketa proposatzen du. Hautatutako obrek ibilbidean kontzeptu-nodo gisa funtzionatzen dute. Piezak ez daude kronologikoki edo bilakaeraren arabera antolatuta. Kontrara, piezek pentsamenduaren jomuga garratz gisa dihardute eta hausnarketa kritikoko eremuak kondentsatzen dituzte. Hausnarketa horiek giza dimentsioaren, gizakiok espazioarekin dugun harremanaren, denboraren eta memoriaren eraikuntzaren inguruan egin dira.

Existentziaren sentikortasunetik, Adelen lanak munduarekiko ikuspegi modernoari forma eman dioten adierazpen-, neurketa-, eta arrazionalizazio-sistemak zalantzan jartzen ditu. Vitruvioren gizona, Errenazimenduko proportzioaren, ordenaren eta zentralitatearen irakurketan, hemen okertutako erreferente gisa agertzen da: mugitutako figura, askotarikoa eta fraktala, eskala-erreferentzia oro galdu duena; desoreka sotil hori pieza guztietan antzematen dugu eta laginean nabari da orokorrean. Adelek figura hori proportzio-ideal gisa aurkeztu ordez, lekualdatutako gorputz moduan aurkezten du, ardatzik gabea.

## Una roca que flota girando en círculos

Oihane Sánchez Duro *

*Hablar del trabajo de Adel Alonso supone enfrentarse a una estructura compleja; una instalación multidisciplinar con diversos niveles de lectura que profundizan incisivamente en los intersticios que configuran la sociedad contemporánea.*

*La exposición propone una lectura transversal, articulada a través de una selección de obras que funcionan como nodos conceptuales en su trayectoria. Lejos de una ordenación de las piezas cronológica o evolutiva, éstas operan como hitos mordaces de pensamiento que condensan distintos ámbitos de reflexión crítica en torno a la dimensión humana y su relación con el espacio, el tiempo y la construcción de la memoria.*

*Desde una sensibilidad existencialista, el trabajo de Adel cuestiona los sistemas de representación, medición y racionalización que han dado forma a la visión moderna del mundo. El hombre de Vitruvio, en su lectura renacentista de proporción, orden y centralidad, aparece aquí como un referente descentrado: una figura ya desplazada, múltiple y fractal, que ha perdido toda referencia de escala; un desequilibrio sutil que percibimos en cada una de las piezas, y latente en la muestra en general. Adel alude a esta figura no como ideal de proporción, sino*

Zentralitate falta horretatik abiatuta, erakusketan gizarte-ekosistema garaikideen konfigurazioa lantzen da: sare mugikorrak, egitura homogeneoak eta noraezeko gorputzak. Immigrantea Vitruvioren Gizonaren kontrapuntu garaikide gisa agertzen da eta “lehenengo etxe” harmonikoan bizi ordez, larrialdiko-arkitektura bati aurre egin behar dio, egitura prekarioekin eraikitakoa. Testuinguru horretan, Adelen estetika zatikatua heterokronia-nozioarekin lerrokatzen da; horren bitartez, sinkronikoak ez diren denborak (eta espazioak ere bai) elkarrekin agertzen dira, gainjarri egiten dira eta plano berean tenkatzen dira. Gainjartze horrek, artistaren esanetan, orainaldiaren labilitateaz ohartarazten duen “memoria zulatua” sortzen du.

Adelen obrak aurriaren eta berreraikuntzaren, hondakinaren eta aukeraren artean kokatzen dira: giza gorputzak (bere ardatzetik mugiarazi duten Vitruvioren Gizonak) noraezeko dimentsioa hartzen du. Immigranteak deserrotzearen eta babesbeharraren artean eskalarik eta euskailurik gabe flotatzen duen subjektuaren ezaugarri hori hezurmamitzen du. Adelentzat, bizi izatea nahastutako hiru mailako esperientzia bihurtzen da: lehenik eta behin, “lehenengo etxea” galtzea, hau da, natura espazio komun gisa galtzea. Bigarrenik, eta lehenengo galeraren ondorioz, errotu ahal izatea —eta norbere memoria eta memoria partekatua finkatzea— ezinezko egiten duen gizarte-loturekiko, kulturalekiko eta afektiboekiko hazten doan deskonexioa gertatzen da. Eta, bukatzeko, norbanakoa babestu ahal izateko aterpe fisikoa zein sinbolikoa eraikitzeko ezintasuna. Horregatik, Adelek hondarrari eta galerari lotutako objektuak eta materialak bilatzen, katalogatzen eta analizatzen ditu.

Egurrezko zatiak askotariko norabideetara proiektatzen den egitura aldakor gisa, norae-

*como un cuerpo desplazado, sin eje.*

*Desde ese mismo descentramiento, la exposición aborda la configuración de los ecosistemas sociales contemporáneos: redes móviles, estructuras heterogéneas, cuerpos errantes. La figura del migrante aparece entonces como contrapunto contemporáneo del Hombre de Vitruvio que, en vez de habitar una “primera casa” armónica, se enfrenta a una arquitectura de emergencia, erigida sobre estructuras precarias. En este marco, la estética fragmentaria de Adel se alinea con la noción de heterocronía, por la que tiempos (y, por qué no; espacios) no sincrónicos coexisten, se superponen y se tensionan en un mismo plano. Una superposición que genera, en palabras del artista, una “memoria perforada” que advierte sobre la labilidad del presente.*

*Así, las obras de Adel se sitúan en el umbral entre ruina y reconstrucción, entre residuo y posibilidad: el cuerpo humano (ese hombre de Vitruvio que ha sido desplazado de su centro), adquiere una dimensión errante. El migrante encarna esta condición de sujeto sin escala ni sujeción que flota entre el desarraigo y la necesidad de un refugio. En este contexto, para Adel habitar se convierte en una experiencia interferida que consta de tres niveles: en primer lugar, la pérdida de la “primera casa”, es decir, de la naturaleza como espacio común. En segundo término, y a consecuencia de la primera pérdida, una desconexión creciente de los vínculos sociales, culturales y afectivos que imposibilita el enraizamiento y, con ello, la consolidación de una memoria individual pero también compartida. Y, por último, la imposibilidad de construcción de un refugio, tanto físico como simbólico, en el que el individuo pueda cobijarse. Por ello, Adel busca, recopila, cataloga y analiza aquellos objetos y*



zean dabiltzan enbor urriei heldu nahi dieten txatalak edo milaka zatitan apurtzen den ispiluak, banandutako gorputz bat gogorarazten dute: plano berean kolapsatzen duten denborazkotasunen baterako existentzia disonantea. Cromo Duroko aurri-eraikinean gauza bera gertatzen da, lerro kronologikoekin edo denborazkoekin bat ez datorren hautsitako denbora adierazten da eta, aldi berean, paisaia apurtu eta ahaztua irudikatzen da; nortasuna galtzean sortzen den hutsunea da eta, horregatik, sortu zuen sistemak berak xurgatu egiten du azkenean. Cromo Duroko hormek eta paretek orain osatzen dituzten denbora-aterpeek sutura gisa funtzionatzen dute, zeinak espazioa eta galdutako denbora lotu nahi dituen, etxea berreskuratzeko saiakeran. Orainaldiaren arkitektura horrek, orbain traketsa bailitzan, irekita jarraitzen duen zauria seinalatzen du: nostalgiak, grezieratik datorren hitzak —nostos (etxea) eta algia (mina)— tristeziatik edo herriminetik haratago doan esanahia du hemen, eta etxea eta atzean utzitako aterpea galtzeak sortutako sufrimendua aipatzen ditu. Andreas Huyssenen hitzetan,

> “Nostalgia-desiran denborazkotasuna eta espazialtasuna lotzen dira. Arkitektura-aurriak nostalgia sortzen du, iraganarekiko denbora- eta espazio-desira konbinatzen baititu modu bereiziezinean. Aurriaren gorputzean, iragana hondarretan presente dago eta, hala ere, jada ezin da eskuratu. Horregatik, aurria nostalgiaren bultzada boteretsua da”. (1)

Erakusketak pentsatzeko moduetatik eta, bereziki, mundua zalantzatik, hausturatik eta erabateko ereduekiko erresistentziatik bizi izateko formetatik ibiltzea proposatzen du. Sisiforen mitoan bezala, errepikapena kondena eta ohartarazpena bihurtzen da. Amets bat, aurrerapenarena (Goyak arrazoiaren inguruan egindako esaldi os-

*materiales que aluden al resto y a la pérdida.*

*Los fragmentos de madera, como una estructura mutable que se proyecta hacia múltiples direcciones, los retales que buscan asirse a los escasos troncos a la deriva, o un espejo que se rompe en múltiples pedazos, remiten a un cuerpo escindido: una coexistencia disonante de temporalidades que colapsan en un mismo plano. Tal y como ocurre en el edificio en ruinas de Cromo Duro, donde se manifiesta ese tiempo quebrado que no encaja en ninguna línea cronológica o temporal; y así como se manifiesta, al mismo tiempo, un paisaje roto y olvidado: un vacío producido por la pérdida de identidad y que, por ello, termina por ser absorbido por el propio sistema que lo generó. Los refugios temporales que albergan ahora los muros y paredes de Cromo Duro funcionan como una sutura que trata de unir el espacio y el tiempo perdido, en un intento por recuperar el hogar. Una arquitectura del presente que, como una torpe cicatriz, señala la herida que sigue abierta: la nostalgia, del griego nostos (hogar) y algia (dolor) cobra aquí un significado que va más allá de un sentimiento de tristeza, de añoranza, aludiendo al sufrimiento producido por la pérdida del hogar y el refugio dejado atrás. Sostiene Andreas Huyssen que,*

> *“En el deseo nostálgico se unen la temporalidad y la espacialidad. La ruina arquitectónica despierta la nostalgia porque combina de modo indisoluble los deseos temporales y espaciales por el pasado. En el cuerpo de la ruina el pasado está presente en sus residuos y, sin embargo, ya no resulta accesible, por eso la ruina es un impulso poderoso de la nostalgia”. (1)*

*La exposición propone, en este sentido, un recorrido por las formas de pensar y, sobre todo, habitar el mundo desde la incertidumbre, la fisura*



**"espacios anónimos". Los no lugares**
Los no lugares y las redes sociales son nuevos territorios flotantes, donde desaparece la relación directa. Lugares de paso, de almacén, aparcamientos, lugares obsoletos, de periferia, telenoticias, la publicidad, etc., en plena proliferación. También, el turismo masivo tiene la propiedad de transformar los lugares en no lugares. Son lugares sin entidad, sin memoria, donde prevalece lo provisional, lo efímero, el vacío, la huida, lo individual: lugares en los que nunca se está en casa.

Existen no lugares espaciales (fuga de espacio) y no lugares temporales (fuga de tiempo.



petsuari aipu eginez), munstroak sortzen dituena eta nolabaiteko vitruviar amesgaiztoari aurre egin beharrean jartzen gaituena: ordenarik, eskalarik eta norabiderik gabeko mundua. Sisifo bezala, bidean aurkitzen zituen bidaiariak krudelkeriaz erailtzeagatik epaitua izan zena, geu ere errepikapen absurdora kondenatuta gaude, haitza, gailurra ukitu eta berehala, beherantz erortzen baita berriro ere; ahitutako modernitateari egindako alegoria.

Adelek, hala ere, iraunkortasun kritikoko ariketa proposatzen digu. Haitzaren mugimendu ziklikoa begiratzeko eskatzen digu. Errepikapena orain erresistentzia-modu bat da eta lagin honetako pieza guztiak zeharkatzen ditu. Piezak espazioan kokatuta dauden moduarengatik ere noraezean ibiltzera behartuta gaude, zirkuluak eginez, artistak iradokitako zentratu gabeko eta norabiderik ez duen subjektu horren mugimendua hezurmamituz. Adelek irudikatu dituen figura guztiak (immigrantea eta bulego-eraikin batetik behin eta berriz sartzen eta irteten den pertsona) zeharkatzen ditu errutina batek: borondatezkoak ez direla diruditen patroi errepikakorrei lotutako bizitzak dira. Albert Camusen heroi absurdoa bezala, kiribil tragiko batean kondentsatuta mantentzen diren figurak. Baina poetak dioen bezala, tragikoa bihurtzen da bakarrik subjektuak kontziente den uneetan; hau da, subjektua, ustez, amets modernotik esnatzen den eta, azkenean, mistizismo hori zalantzan jartzen duen uneetan.

* Oihane Sánchez Duro artista, arte garaikideko ikerketa-doktorea eta EHUko Arte Ederren Fakultateko irakaslea da.

--------------------------------------------

*(1)* Andreas Huyssen: "La nostalgia por las ruinas", hemen: Heterocronías: tiempo, arte y arqueologías del presente. Murtzia: CENDEAC, 2008.

*y la resistencia a los modelos totalizantes. Como en el mito de Sísifo, la repetición se convierte en condena y también en advertencia. Un sueño, el del progreso (tomando prestada la célebre sentencia de Goya sobre la razón) que produce monstruos, y nos encara hacia una especie de pesadilla vitruviana: un mundo sin orden, sin escala, sin dirección. Como Sísifo, castigado por su crueldad al asesinar a los viajeros que encontraba en el camino, estamos condenados a la repetición absurda por la que la roca, nada más tocar la cima, vuelve a caer hacia abajo; alegoría de una modernidad agotada.*

*Adel, sin embargo, nos propone un ejercicio de persistencia crítica. Nos insta a observar el movimiento cíclico de la roca. La repetición, ahora como forma de resistencia, atraviesa cada pieza de esta muestra. Incluso la disposición de éstas en el espacio nos obliga a deambular, a errar en círculos, materializando el movimiento de ese sujeto descentrado y sin rumbo al que alude el artista. Cada figura de las representadas por Adel (desde el migrante hasta la persona que entra y sale una y otra vez del edificio de oficinas) está atravesada por una rutina; vidas sujetas a patrones repetitivos que parecen ajenos a su voluntad. Figuras que, como el héroe absurdo de Albert Camus, se mantienen condensadas en un bucle trágico. Aunque, como señala el poeta, sólo es trágico en los momentos en los que el sujeto se hace consciente; en los momentos en los que el sujeto parece despertar del sueño moderno y cuestionar, por fin, todo misticismo.*

* *Oihane Sánchez Duro* es artista, Doctora en investigación en arte contemporáneo y docente en la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU

--------------------------------------------

*(1) Andreas Huyssen:* "La nostalgia por las ruinas", en Heterocronías: tiempo, arte y arqueologías del presente. Murcia: CENDEAC, 2008.

## “Habitar”



**“Antropia vs? entropia” eta giza dimentsioa**.
Entropia askotariko zerbait bezala ulertzen da, halabeharra, eraldatzailea eta sortzailea, desordena da izaki bizidunen nahitako ordenaren aurka. Maxwel: “ordena ez da berez gauza materialen propietate bat, hautematen duen gogamenarentzako harreman bat baizik”. Gizakiak ingurunean duen eragina da antropia, “irauteagatik”. Ingurumenaren eta naturaren gaineko giza ekintza interbentzionistak sistema naturalen egitura autoantolatzaileak suntsitzen ditu. “Bizi”. Leiho desberdinak dira, gizakiak naturarekiko harremanean duen lekua ulertzeko galderak egiten dizkigutenak.

El dibujo de Leonardo da Vinci, “El hombre de Vitruvio”, tiene su origen en el arquitecto Vitruvio y su modelo de vivienda básica y originaria en correlación con las proporciones del cuerpo humano. Leonardo sitúa al hombre como centro y medida de todas las cosas. (**Pág.22**)





“El sueño del progreso produce monstruos” (Chernóbil)



(Amazonia). *“Los bosques preceden a las civilizaciones y los desiertos las siguen”*. Chateaubriand



*“Que la Naturaleza restaure la Razón”* (Mar Menor)







**“carrusel”**



De la serie **“Identidad y territorio”**. (Tres historias)

1. Una mujer se resiste a marchar del lugar en el que vive, a pesar de sentirse acorralada desde hace varias décadas por la instalación en su entorno de una gasolinera, un parque industrial y una autopista.
2. Un hombre, impulsado a migrar hace años del campo a la ciudad, tras su jubilación deambula solitario y ausente por las calles.
3. Un oficinista-ejecutivo recorre cada día a las mismas horas el camino de casa al trabajo y del trabajo a casa: tiempo cíclico, eterno retorno… permite hablar de la pervivencia del mito en la vida del ser anónimo de la gran ciudad: pensando en el Ulises de Homero y pasando por el Ulises de Joyce y “la condena de Sísifo”, de Camus.

Son tres narrativas que sintetizan la sociedad postindustrial de la segunda mitad del siglo XX.











**“Narciso. Narrativa de un intento fallido”**.
-De la serie Identidad y Territorio-.
El mueble “Narciso” fue intervenido previamente eliminando su funcionalidad y transformado en objeto auto-continente, sin connotaciones específicas, sin memoria. “Narciso” describe un recorrido en secuencias o paisajes distintos. Las distintas localizaciones simulan un viaje a modo de relato en el que sus posibilidades por adaptarse a la situación, acaba resultando un intento fallido. En su final queda a merced del oleaje, sumergido en su propia soledad.




## zure · fare

Zaharkitutzat jotako ondare-eraikin baten eta etxerik ez dutenek bizi izateko egindako saiakeren arteko harremana. Paradoxa arraroa gertatzen da; izan ere, espazio eta pertsona horiek itzuli egiten dira elkarrekiko etendako harreman ezegonkorretik, existentziaren mugan. Gela hutsa berritu egiten da behin eta berriz eta eraikuntza prekario eta orijinalekin konpartimentuetan banatzen da.

*Una relación encontrada entre un edificio patrimonial considerado obsoleto, frente a los intentos de habitación por personas sin hogar. Se da la extraña paradoja de que ese espacio y esas personas se restituyen a partir de una relación mutua en suspenso e inestable, en el límite de su existencia. La estancia vacía, sucesivamente se renueva y se compartimenta con precarias y originales construcciones.*





“Fase del espejo. Inmersión mediática”



“crossover”

## Bizi izatea. Ahaztutako paisaiak

Erakusketan nire azken lana aurkezten da. Askotariko elementuekin osatuta- ko obrak dira eta guztiek batera diziplina anitzeko instalazioa osatzen dute.

Objektuak sortu ordez, askotariko elementuak antolatzen diren egitura batean muntaia bat egiten dut. Eraikitako obra bat da eta denboran eta espazioan behatu beharra dago, ibili, elkarri eragin eta garunarekin eta gorputzarekin hauteman behar da.

Erakusketak egungo aldaketa drastikoen garaiaz hitz egiten du eta errealitatetik kanpo sentitzen garen munduaren inguruko galderak planteatzen ditu; nomadak gara espazio existentzial atzemanezinean eta kokatzeko gai ez garen garai ibilkorrean.

"Paisaia ahaztuetan bizi izan" lanak nortasunaz eta memoriaz hitz egiten du. Nortasuna, lekuaren memoriarekin eta bizipenekin lotuta; memoria, jatorriarekin eta aspirazioekin lotuta.
Ahaztutako paisaiak, naturarekin, lurraldearekin eta jatorriarekin ezartzen dugun harremanean gertatzen den nolabaiteko desbideratzearekin lotuta, baita ere lurralde birtual berrietatik abiatuta izaki konkretuaren ziurgabetasunarekin eta ondoezarekin.

## Habitar. Paisajes olvidados

La exposición presenta mi último trabajo, obras compuestas de múltiples elementos y que en su conjunto forman una instalación multidisciplinar.

Más que hacer objetos, hago un montaje en estructura donde se articulan elementos diversos para crear una obra energética, una obra construida que exige ser observada en tiempo y espacio, exige un recorrido, interactuar y ser apreciada con mente y cuerpo.

La exposición trata del tiempo de drástico cambio en que nos encontramos y plantea interrogantes sobre un mundo donde nos sentimos desplazados de la propia realidad, nómadas en un espacio existencial inaprensible y un tiempo fluyente que no logramos situar.

"*habitar, paisajes olvidados*", habla de la identidad y de la memoria. Identidad, en cuanto memoria del lugar y las vivencias; memoria, en cuanto al origen y a las aspiraciones. *Paisajes olvidados*, en alusión tanto a cierto desvío en la relación que establecemos con la naturaleza, el territorio y el origen como a la incertidumbre y el desvanecimiento del ser concreto a partir de los nuevos territorios virtuales.

## Obrak / Obras

—(8.or.). **"espazio anonimoak". Ez lekuak**
Ez lekuak eta sare sozialak lurralde berri flotatzaileak dira eta harreman zuzenak desagertu egin dira. Igarotzeko eta biltegiratzeko lekuak, aparkalekuak, zaharkitutako tokiak, periferiakoak, telealbisteak, publizitatea eta abarrak etengabe ugaritzen ari dira. Turismo masiboak ere lekuak ez leku bihurtzeko propietatea du. Nortasunik eta memoriarik gabeko lekuak dira eta horietan nagusi da behin-behinekoa, efimeroa, hutsa, ihesa, indibiduala dena: leku horietan zaudenean sekula ere ez zaude etxean.

Ez leku espazialak (espazioaren ihesa) eta ez leku denborazkoak (denboraren ihesa) existitzen dira.

—(pág. 10-11) ***"Habitar"***. Leonardo da Vinciren "El hombre de Vitruvio" marrazkiak Vitruvio arkitektoarengan du jatorria, eta bere oinarrizko eta jatorrizko etxebizitza eredua, giza gorputzaren proportzioekin korrelazioan. Leonardok gizakia kokatzen du gauza guztien erdigune eta neurri gisa.
"Naturak Arrazoia berrezarri dezala", Txernobyl, Amazonia eta Itsaso Txikia, gizakiak naturarekiko harremanean duen lekua ulertzeko galdetzen diguten hiru leiho.

***"Antropía vs? entropía"*** *y dimensión humana.*
*La entropía se entiende como algo diverso, azar, transformador creativo, es desorden respecto o contra el orden intencional de los seres vivos.*
*La antropía es la acción humana intervencionista sobre la naturaleza, de hecho, es destructora de las estructuras auto-organizativas de los sistemas naturales.*
*"Que la Naturaleza restaure la Razón", Chernóbil, la Amazonia y el Mar Menor, tres ventanas que nos interrogan para entender el lugar que el ser humano ocupa en la relación con la naturaleza.*

— (pág. 12) ***"Carrusel"***. Lanak pertsonen derrigorrezko lekualdatzearen prekarietateari buruzko hainbat alderdi erakusten ditu: izaki ikusezinak eta anonimoak... Migrazioaz eta biziraupenaz gain, ezegonkortasunaz, hauskortasunaz eta ziurgabetasunaz ere arduratzen da. Era berean, lan honek mendebaldeko gizaki modernoa irudikatzen du gaur egun.

***"Carrusel"****. La obra muestra distintos aspectos concernientes a la precariedad en el desplazamiento obligado de personas: seres invisibles y anónimos … Trata no solo de migración y de subsistencia, también de inestabilidad, fragilidad e incertidumbre. Igualmente, esta obra representa al hombre moderno occidental en el presente.*

–(14.or.) **"Nortasuna eta lurraldea" seriea.** Hiru leiho
1. Emakume bat bere bizilekua ez uzteko setati dago, hamarkada luzeetan hesituta sentitzen den arren inguruko gasolindegia, industria-parkea eta autobidea direla-eta.
2. Gizon honek orain dela urteak halabeharrez landa-eremutik hirira migratu behar izan zuen eta erretiroa hartu eta gero, noraezean dabil bakarrik eta galduta kaleetatik.
3. Bulegari-exekutibo batek egunero egiten du etxetik lanerako eta lanetik etxerako bidea ordu berean; denbora ziklikoa, betiereko itzulera...hiri handietako izaki anonimoen bizitzetako mitoaren bizirauteaz hitz egitea ahalbidetzen du, Homeroren Ulisesen, Joycen Ulisesen eta Albert Camusen "Sisiforen kondenan" pentsatuz.

Hiru kontaketa horiek XX. mendeko bigarren erdiko gizarte postindustriala laburbiltzen dute.



—(16.or.) **"Narciso. Zapuztutako saiakera baten kontaketa"**
Nortasuna eta Lurraldea seriekoa.
"Narciso" altzariari aurretik bere funtzionaltasuna kendu zioten eta objektu auto-edukitzaile bihurtu zuten, ñabardura espezifikorik gabekoa, memoriarik gabekoa. "Narcisok" sekuentzia eta paisaia ezberdinetako ibilbidea deskribatzen du. Lokalizazioek kontaketa-erako bidaia simulatzen dute, non egoerara egokitzeko aukerek zapuztutako saiakera izaten bukatzen duten. Bukaeran olatuen esku geratzen da, bere bakardadean murgilduta.

— (19.or.) **"Ispiluaren fasea. Murgiltze mediatikoa "**. Ispilua espekulazio-mintz bat da. Ispiluko irudia irudi birtuala da, argazkigintzan eta pinturan eraikitako irudia da, sare sozialetan zatikatutako irudia da: identitate birtualak gaindituta ko ni erreala.

Erreala eta birtuala inguratzen dituen obra erradikala da, garaikidetasunaren isla. Bestearen irudiari tiro egiten diogu, alteritateari. Mehatxatzen gaituen irudiari tiro egiten diogu (ispiluaren bigarren fasea, Lacanen atzetik).

***"Fase del espejo. Inmersión mediática"****.*
*El espejo es una membrana especular. La imagen en el espejo es una imagen virtual, en fotografía y en la pintura es imagen construida, en las redes sociales es imagen fragmentada: el yo real superado por la identidad virtual.*

*Es una obra radical que bordea lo real y lo virtual, reflejo de la contemporaneidad. Disparamos a la imagen del otro, a la alteridad. Disparamos a la propia imagen, que nos amenaza (segunda fase del espejo, siguiendo a Lacan).*

—(20.or.) ***"Elkarrizketak. Crossover "***. Errealitatearen pertzepzioa eta haren birtualtasuna aipatzen ditu. Jolas interaktibo bat, errealaren eta birtualaren (birtuala den errealitatea eta errealitate birtuala) arteko espazio anbiguoa eta interstizioa deskribatzen duena, uretako gerra-jolas batean edo ura botatzen duen jolas batean oinarrituta.
Publikoaren parte-hartzea ahalbidetzen eta eskatzen duen obra interaktiboa da. Ikuslea gehitu eta obra aktibatzen du, eta, aldi berean, obrak ikuslea ustekabeko parte hartzean kokatzen du.

***"Diálogos. Crossover"****. Que alude a la percepción de la realidad y su virtualidad. Un juego interactivo que describe el espacio ambiguo e intersticio entre lo real y lo virtual (virtual realidad y realidad virtual), a partir de un juego infantil de guerra de agua o escupe agua.*

*Es una obra interactiva que posibilita y exige la participación del público. El espectador se incorpora y activa la obra, a la vez que la obra sitúa al espectador en una participación inesperada.*










## Adel Alonso, gizarte- eta kultura-konpromisoa

Ángel Asensio Miranda*

Ez da batere erraza Adelek, bere nortasun sortzailea definitzen duten edozein arlotan, 50 urteetan dedikazio osoz egin duen ibilbide soziokultural anitz eta multiformea azaltzea. Normalean esaten du emaitzak ustekabeak eta ausazkoak direla, ia beti esperimentalak, beti izan baitaitezke hasierako aurreikuspenarekiko ezberdinak. Bere jarrera ireki hori dela-eta, bere sorkuntzekiko aurrez aurre jartzen denean, ideiak, materialak eta prozesuak esperimentazioaren bitartez erabiltzen ditu. Horregatik, 2020an idatzi zituen "Memorias de paso" memorietan hau esan zuen: "… Sekula ez ditut nire lorpenak ospatu, beren irismenaren inguruko zalantzak baititut". Hala eta guztiz ere, bere obrak eta jarduera mobilizatzailea kontenplatu dituzten guztiek (bitartekariek edo hedatzaileek), ekidin ezin duen jokaera perfekzionistaren xehetasuna nabarmentzen dute lehen begiradan.

Oinarrizko Heziketa Orokorreko irakasle izateko ikasi zuen, baita psikologia ere, eta prestakuntza artistikoa ere badu. Ikerketa eta partekatutako hausnarketak eta praxi artistikoa, editatzailea, programatzailea eta elkarteetako dinamizatzaile-jarduera etengabeak dira bere bizitzan. 13 urte zituela hasi zen bere kabuz figurazio-pintura ikasten eta lantzen. Bere militantzia soziopolitikoak, akratak eta siglekiko aurreiritzi gabeak eta gaztetako lurraldearekiko (Barakaldo, Santurtzi eta Muskiz) duen konpromiso izugarriak sei kolektibo eta elkarte eratzera eraman zuten. Horien bitartez informazio-jarduera intentsua gauzatu zuen, kontzertuak eta erakusketak antolatu zituen, muralgintza, happeninga, zinema-asteak, hitzaldiak eta eztabaidak, manifestazioak, aldizkariak… Adelek berak dioen bezala: "ez zegoen kultur-etxerik eta "kaleak" estuegiak ziren". Jarduera horrekin lotuta dago 1984tik behin betikoz artearen mundura izan zuen sarrera. **Muskizen 1992-1993an erakusketak antolatu zituen eta geroago Gallarta areto ospetsuan,** Julio Prieto zinegotziarekin batera, edo pintura-irakasle jarduten zuen Abanto Zierbenako udal-tailerretan eta, aldi berean, beste aktibista



## *Adel Alonso, compromiso social y cultural*

Ángel Asensio Miranda *

*No resulta fácil abordar la multiforme y diversa andadura sociocultural que Adel ha desarrollado en sus cincuenta años largos de dedicación plena a cualquiera de los campos que definen su personalidad creativa. Tiende a considerar los resultados como casuales y aleatorios, casi siempre experimentales, ya que pudieran ser en todo momento diferentes de la previsión inicial. Esta actitud personal abierta hace que siempre se enfrente a sus creaciones desde el uso experimental de ideas, materiales y procesos. De ahí que considere en sus "Memorias de paso" escritas en 2020 "…Nunca me he permitido celebrar mis aciertos, pues tiendo a albergar dudas sobre el alcance de los mismos". Sin embargo, desde la perspectiva de cualquier observador que contempla sus obras y su actividad movilizadora, mediadora o difusora, se destacan al primer vistazo el detalle de su inevitable tendencia perfeccionista.*

*Su formación como profesor de EGB con algunos estudios de psicología se completa con su formación artística. La investigación y reflexión compartidas y la praxis artística, editora, programadora o dinamizadora de asociaciones es una constante en su vida. A los 13 años inicia su andadura en la pintura figurativa de forma autodidacta. Su militancia sociopolítica, ácrata y desprejuiciada de siglas, muy comprometida con el territorio en el que vive su juventud, Barakaldo, Santurtzi y Muskiz, le lleva a participar en la constitución de seis colectivos y asociaciones desde los que se generó una intensa actividad informativa, organización de conciertos y exposiciones, muralismo y happening, semanas de cine, charlas y debates, manifestaciones, revistas… Como dice Adel, "no había casas de cultura y las "calles" eran muy estrechas". Esta actividad va pareja a su incursión definitiva en el mundo del arte desde 1984. Ya programaba **exposiciones en 1992-93 en Muskiz y después en la referencial Sala de Gallarta,** promovida por él junto al concejal Julio Prieto, o ejercía de profesor de pintura en los talleres municipales en Abanto y Zierbena a la vez que ponía en marcha junto*

